

JUAN MADARIAGA ORBEA

Apologistas y detractores

(703 edo 677 orrialde)



MADARIAGA, J.,
2006, 2008,
Apologistas y detractores de la lengua vasca / Apologists and Detractors of the Basque Language,
Donostia: Basque Studies / FEDHADAV.

Juan Madariaga Orbea

Madriilen jaio zen (1949), eta gaur egun Nafarroako Unibertsitate Publikoko Irakaslea da (2000-).

Luzaroan lan egin zuen Bergarako UNED ikastegian (1976-2002), eta Eusko Ikaskuntzako *Jakinet* Ikastaroetan koordinatzaile ere izan da. Oro har, sarritan gidatu ditu iker- eta ikastaldeak.

Besteak beste, historia sozioekonomikoaz, tokian tokikoaz eta pentsamoldeen historiaz arduratu da bere ikerlanetan.

Liburu honek euskararen historia sozialerako duen garrantzia oso nabaria da, hizkuntzaren inguruko pentsaera eta jarrerak erakusten baitizkigu.

Beronen helburua garaian garaiko pentsaera eskolatuen berri ematea da, ez hainbeste herritar mintzatzaileen sentierak jasotzea.

Alde horretatik, gure herriko kultur gidarien euskararekiko interes, ideologia eta jokamoldeak ezagutzeko aukera ematen du, iruzkin historiko ugari eta testu aberatsen bidez.

Euskararen inguruko kezka, galdera eta interes sozial eta intelektualei erantzunez, asko idatzi izan dute euskaldunek, eta ez gutxi zenbait kanpotarrek.

Ondorioz, argitalpen ugari egon da XVI-XIX. mendeetan euskararen jatorri, ahai-detasun, balio, eskasia edo hedaduraz jardutean.

Eztabaida horretan erabilitako ikuspuntuak ugariak izan dira: adibidez, Bibliak hizkuntzei buruz esandakoez baliatu ziren gurearen antzinatasuna baieztatzeko; era berean, balizko antzinatasun hura ongi etorri zen gure herritar guztien kaparetasuna frogatzeko, etab.

Honek guztiak, ordea, ez zuen sustatu euskarazko kultura jantzia, komeniko zen heinean behintzat, nahiz eta hizkuntzarekiko gizarteko jarrerak alde jartzen lagundu zuen.

Bestalde, apologista eta salatarien artean oso zaila izan zen mito zaharretatik hizkuntzaren zientziatarako jauzia.

Liburu honek bi parte nagusi ditu: bata, sarrera gisara, eztabaida hauen historia aurkezten du (1545-1876), eta besteak 69 testu ematen (aski luzeak ere), premiazko zertzelada historikoak gehituz.

Gaiari buruz, orain arte eskueran genituen argitalpenak ongi gaintu eta hobetu ditu liburu honek, eta euskararen inguruko pentsamendu eskolatua –aldekoa eta aurka-koa, biak– ezagutzeko aukera ederra da, aurkibide egokiak lagun dituela, gainera.

Bi edizio izan ditu liburu honek, kasik aldi berekoak: bata AEBetako Reno-ko Unibertsitateko *Center for Basque Studies*-en eta bigarrena Donostian, Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoa Aztertzeke Fundazioaren eskutik (FEDHAV)